

Porno bat Ikusiko dugu?


Pornografiaren negozioaren eragin pertsonal eta soziala

Industria pornografikoaren giroan nabarmentzen dan webgune batek argitaratutako datuen arabera, dalako web horrek 33.500 miloi bisita, hau da huskeria, izan ebazan bere edukia eskuratzeko

Eta hau, interneten pornografiarako sarbide diran askotariko atarrietako bat baino ez da. Datu honeen arabera, Espainia, sarrera gehien zenbatzen diran herrialdeen Top 20an dago (13. postuan, alajaina!); eta Espainian webgune horreetan sartzen diran gehienak (%71) adin guztietako gizonezkoak dira. Webgunean, 18 urtetik gorako pertsonen datuak erregistratzen dira, baina ez dabe kontuan hartzen "18 urte edo gehiago dodaz" mezuan klikatzen dauan adin txikiko bat be sartu daitekela (iragazkiak iragazki, 18 urtetik beherakoak be sartu daitezke edukira).

Webgune horretara sartu daitezanez ezin konta ahala bideo aurkituko dabe eta horreen artean nagusi dira porno mainstream deitutakoa (mezu honen oinarria) eskaintzen dabenak; gehien ekoizten diranak dira eta euren edukina gizon heterosexualei zuzenduta dago eta gizontasun hegemonikoa, menderatzaile eta ahaltsua, nabarmentzen dau. Baina menderatzea eta ahalmena nabarmentzeko ezinbestekoa da nor edo zer menderatu izatea, norbaitengan edo zerbaiten ahalmena ezartzeko aukera izatea, eta horixe da emakumeei industria pornografikoan emoten jaken eremua.

Zerbaitegaitik dator 'pornografia' hitza 'porné' (prostituta) eta 'graphein' (idatzi) hitzetatik. Pornografian, apalkuntzak, irainek eta, orokorrean, indarkeriak, leku nabarmena dabe, play sakatzen dabenei plazerra emoteari dagokionez; pornografiak adiera sexuala emoten deutso indarkeriari eta gizonen eta emakumeen arteko desbardintasunezko sexu-harremanaren hedapena dakar.



Pornografia sexu askatasunaren aitzindari lez defendatu gura dauan eretxirik badago be, errealidadeak erakusten deusku dalako askatasun hori gizonei bakarrik emoten jakela eta euren fantasiak emakumeei askatasuna ukatuz beteteko zilegitasunari lotuta dagoala.

Ala baimena, onspena, inongo derrigortze barik emoten da, ba? Benetan sinisten dogu geure bizitza garatzen dan errealidade patriarkalak –eta, ondorioz, desbardintasunezkoak- ez dauala, era batera edo bestera, gure gorputzekin egiteko edo ez egiteko prest gagozana baldintzatzen?

Pornoa fikzinoa baino ez dala esango dau askok: bideoak aldez aurretik ondo pentsatutako gidoi bategaz (nolabait deitzearren), non gertatzen dan guztia hitzartuta dagoan eta emakume protagonistei segurtasuna eta babesa eskaintzen deusezan filmatze-setean gauzatzen dan. Baina, beste behin be, errealidadeak gogor astintzen ditu sarean doguznan ibilerak zurrizte aldera holan izateko doguzan nahiak.

Pornoa gero eta bortitz eta zakarragoa da; makinatxo bat dira filmatzen hasten diranean egundoko oinazealdia jasaten daben emakumeen istorioak: egia esan ez dira kontalariak, zerbitzariak baino; kobratzea nahi badabe, ezustekorik zakarrenak eta eskaerarik bitxiak onartu beharko dabez, eskatzen dana estugarria, mingarria edo umilgarria dan ala ez kontuan hartu barik.



Ilustración de Luis Quiles

Pornoak sinbolizatzen dauanak erabat baldintzatzen dau gizon eta emakumeok sexuaz espero doguna; hau nabarmenagoa da sexualitatea ezagutzen eta praktikatzen hasten diran eta sexu-harremanetan zelan jardun ikasteko smartphone bidez pornografia eskuratzea bide erraz lez aurkezten jakenengan. Porno hegemonikoan gizonen eta emakumeen izendatzen jakezan eginkizunak edo rola, gero, gazteen ikaskuntzara pasatzen dira eta honek, askotan, sarean ikusitakoa errepikatuz ekiten deuse harreman sexualei. Ez musurik, ez ferekarik, ez barrerik. Ahalegin guztiak koitora, sarketara, gizonaren eiazulazina bideratu, kosta ahala kosta, besterik ez. Porno, batez be adin goiztiarretan, ez da sexuari buruzko beste erreferente bat, gehienetan, erreferente bakarra da-eta. Hezkuntza sexuala familietan eta geletan alde batera itzi ezker edo beste barik balizko "arriskueta" (sexu bidezko gaixotasunak edo nahi bako haurduntzak) oinarrituta landu ezker, azkenean gazteek sarera jotzen dabe beste eremu batzuetan eskaintzen ez deusien informazioaren bila. Ez gintzatekez harritu behar bideo prononetan ikusten dabena onargarria dan ala ez bereizteko zailtasunak dabezala jakitean, izan be, horixe bakarrik ezagutzen dabe! Beraz, zer dala-eta ez da onargarria izango?

Beste alde batetik, ezin dogu ahaztu industria pornografikoa kapitalismorik bortitzenaren pieza bat baino ez dala eta eskaerak eragin nabarmena dauala egiten dan eskaintzan. Gehien bilatzen diren kategorietako batzuk gangbang hitza (hainbat gizonen eta emakumeen batek esku-hartzen daben sexua, non emakumeak egiteko pasiboa dauan – ez deusue manada gogoratzen?-) edo teen hitza (nerabea) badira, pentsatzekoa da holako bideoak grabatzen dirala kontsumitzaileen eskaera asetzen jarraitzeko. Ez dogu zalantzan jarten ezinbestekoa dala beste eremu batzuetan dogun kontsumoa neurtzea eta honek, eskala handian (bidezko merkataritza, garraio publikoa, banka etikoa, kilometro zero, e.a.) egin ezker, merkatuan izan daiken garrantzia eta eragina. Pornoan antzeko zerbait gertatzen da. Zeuk erabakitzen dozu play sakatu ala ez eta, egin ezker, zeuk erabagiko dozu ze motatako pornoa ikusi.

Zer egin daikegu?

- Bizitza pertsonalean, adiskideen artean, kontzientzia kritikoa erakutsi pornografiaren kontsumoaren eraginei buruz, negozio honen ondorio negatiboen inguruko hausnarketa ahalbideratuz.
- Pornografiak, batez be gazteen artean, hezitzailetik ezer ez dauala kontuan hartuta, gizatasuna erasotzen ez daben, merkataritza huts ez diran sexu-harremanak, sexualitatea ezagutzeko bideak jarri daiguzan, hau da, giza duintasuna eta emakume eta gizonen arteko bardintasuna oinarritzat dauan sexualitatea nabarmendu daigun.

Baliabide interesgarriak

- El imaginario pornográfico como pedagogía de la prostitución. Rosa Cobo Bediaren artikulua. Hemen aurkitu daiteke: https://papers.ssrn.com/sol3/papers.cfm?abstract_id=3247769
- Menosturbaciones. Beatriz Caballeroren podcast-ak. Hemen aurkitu daiteke: https://www.ivoox.com/podcast-menosturbaciones_sq_f1566498_1.html
- Growing up in a pornified culture. TED talk de Gail Dines. Bideoa, gaztelaniazko azpitituluak aukeran; hemen aurkitu daiteke: <https://www.youtube.com/watch?v=YpHNlmNsx8&t=335s>
- Escúpelo. Ismael López Fausteren liburua.